

Dimako ermitak

Ermitas de Dima



© Dimako Udala - Ayuntamiento de Dima

Egilea-Realización: Kaioa A.S.P. (Hondartza, 5-6 Deba. Tel.: 943 19 20 30)

Testuak-Textos: Alex Turrillas

Marrazkiak-Ilustraciones: J. Ignacio Treku

Euskararen orrazketa-Corrección de euskera: Nahia Aurrekoetxea

Datu etnografikoen orrazketa-Corrección de datos etnográficos: Abel Ariznabarreta (LARATZU Taldea)

L.G.-D.L.: BI 2448-08



DIMAKO UDALA
AYTO. DE DIMA



euskadi
atsegin handiz
con mucho gusto



INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

S A R R E R A

historian zehar, ermitak ez dira arkitektura- eta erlijino-elementu hutsak izan. Ondasun komun moduan hartu izan da beti ermitea, eta auzokoak batzeko eta hartu-emon sozialak izateko lekua izan da gizaldietan.

Ermiten atarteak, askotan, kofradien egoitza izaten ziran. Batzarrak bere hantxe egiten ziran, eta hareetan kudeatzen, antolatzen eta ebazten ziran auzoaren interes komunerako izaten ziran arau eta betebeharrak. Horreez gain, ermiten atarteei beste hainbat erabilera bere emoten jakiezan; halan, batzuetan jolaserako leku bere izaten ziranez, bola-jokoari esker gure baserritarrek euren lan latza ahazten eben une batez ermiten atarteetan.

Kultura-modu bat sortu da ermiten inguruan, debozinoa eta jaia bat egiten dituana, eta errituak, erromeriak eta hainbat herri-adierazpen landa-munduko kulturaren eta izaeraren bereizgarri izan dira.

Dima da ermita-kopuru gehien gorde dituan Bizkaiko herrietako bat. Denporearen poderioz, ostera, batzuk desagertu egin dira, zoritxarrez. Horrenbestez, ermita horreen kultura-balioaz jabetuta, Dimako Udalak ermita bakoitzaren historia ezagutera emon gura dau.

Argitalpen apal honek gaur egun dagozan hamasei ermiten inguruko hainbat datu jaso ditu laburbilduta. Hareen historia gure herriko etxe, baserri eta auzo bakoitzean bizi garen guztion historiaren zati da.

Berba honeen bidez, aurreko belaunaldiak itxitako ondare-legatu baliotsu hau errespetatu eta zaindu dagiela eskatzen deusie Dimako Udalak herritar eta bisitari guztiei; izan bere, guk bere datozen belaunaldiei herentzia hori ixteko obligazinoa daukagu.

Jose Ramon Garai Iturriondobeitia
DIMAKO ALKATEA

I N T R O D U C C I Ó N

A lo largo de la historia, las ermitas han representado algo más que simples elementos arquitectónico-religiosos. La ermita, considerada desde siempre como un bien comunal, ha sido secularmente lugar de reunión y de relación social entre los vecinos del barrio.

Sus pórticos fueron a menudo sede de las cofradías y en ellos tenían lugar las “*batzarras*” donde se gestionaban, organizaban y decidían las normas y labores que competían al interés comunitario del “auzo”. También estos fueron aprovechados como espacios multifuncionales, a veces lúdicos, donde el juego de bolos mitigaba las arduas labores de nuestros *baserritarras*.

En torno a las ermitas se ha desarrollado una forma de cultura donde la devoción y la fiesta se han fundido, dando lugar a ritos, romerías, y un sinfín de expresiones populares que han marcado y dado forma al carácter y a la cultura del mundo rural.

Dima es uno de los municipios de Bizkaia que conserva mayor número de ermitas. Desgraciadamente, con el transcurso del tiempo, algunas han desaparecido.

Consciente del valor cultural y patrimonial que éstas representan, su Ayuntamiento desea dar a conocer la historia de cada una de ellas.

Esta sencilla publicación recoge, de forma resumida, algunos datos de las dieciséis ermitas existentes en la actualidad. Su historia forma parte de la historia de quienes habitamos en cada casa, caserío o barrio de nuestro pueblo.

Desde estas líneas, el Ayuntamiento de Dima hace un llamamiento a todos los vecinos y visitantes, para respetar y preservar este valioso legado patrimonial heredado de anteriores generaciones; una herencia que estamos obligados a transmitir a las venideras.

Jose Ramon Garai Iturriondobeitia
ALCALDE DE DIMA



SAN ROKE ERMITEA

Olazabalen dago, ehunka urte dituan haretx baten ondoan. Iraganean, haren eleizpean batzen zan izen bereko kofradiaren kontzejua. Noiz eraiki eben jakin ez arren, baliteke XVI. gizaldikoa izatea ermitea; sasoi hartan, Euskal Herrian, izurrite ugari izan zan eta, San Rokeren omenez, hainbat ermita eraiki ebezan (izurridunen zaindaria zan). 1855ean berreraiki eben.

Zur torneatuko hesi batek bereizten ditu eleizpea eta ermitearen barrualdea. Eleizpea kanpai-horma batek errematatzen dau eta kanpai-horma horretan dago kanpantorrea. Ermita zabala da eta hainbat irudi ditu. Erdiko Kristo Santuaren ondoan, San Roke eta San Agustín dagoz eskumako aldean.



Ezkerraldean, San Joan Bataiatzailearen irudia dago. Leku ikusgarri baten, barriz, santu zaindariari zuzendutako ereserkiaren testua irakurri daike:

*Hemen gatoz danok pozik
zure aurrera otoizka
Erroke deuna maitea*

*gure zaindari ona
Erroke deuna maitea
gure zaindari ona*

Kondairaren arabera, San Roke Frantziako Montpellier hirian jaio zan 1300ean. Familia aberats bateko semea zan, eta, dinoenez, gurasoak hil ostean, haren ondasunak jarauntsi eta behartsuen artean banandu ebazan. Erromara joan zan erromes eta Italian ibili zan izurridunak osatzen.

Gizaldietan zehar egin dauan legez, Olazabal auzuneak agorrilaren 16an jarraitzen dau ospatzen bere zaindariaren eguna, meza eta erromeriagaz. Antzina, lehortea izaten zanean, ohitura zan Dimako parrokiatik ermita horretara joatea Santuen Letaniak otoiztuz.

Está ubicada en el núcleo rural de Olazabal, al pie de un roble centenario. En el pasado su pórtico fue lugar de reunión del concejo de la cofradía del mismo nombre. Aunque se desconoce el año de su fundación, es posible que sus orígenes se remontan al siglo XVI, época en la que Euskal Herria sufrió varias epidemias de peste y en la que se levantaron numerosas ermitas dedicadas a San Roque, protector de los apesados. Se sabe que fue reedificada hacia el año 1855.

El pórtico, situado a los pies de la ermita, está separado del interior mediante una reja de madera torneada. Adosado a éste, se levanta un pequeño campanario rematado por una espadaña en la que se sitúa el campanil. La ermita, espaciosa, cuenta con varias imágenes. Junto al Santo Cristo central, a su derecha, se encuentran las de San Roque y San Agustín.

A la izquierda, la de San Juan Bautista. En lugar bien visible, puede leerse el texto de la oración al santo patrón:

*Hemen gatoz danok pozik
zure aurrera otoizka
Erroke deuna maitea*

*gure zaindari ona
Erroke deuna maitea
gure zaindari ona*

Cuenta la tradición que San Roque nació en la ciudad francesa Montpellier, hacia el año 1300. Hijo de una rica familia, se dice de él que, tras morir sus padres, heredó una gran fortuna que repartió entre los pobres. Marchó a Roma como peregrino y recorrió Italia dedicándose a curar a los infectados por la peste.

Al igual que lo ha hecho durante siglos, el barrio de Olazabal sigue celebrando cada 16 de agosto la festividad de su patrón con misa y romería. Antiguamente, cuando había sequía, era costumbre dirigirse desde la parroquia de Dima a esta ermita rezando las letanías de los Santos.

PIEDADEAREN ERMITEA

Ugaranan dago, *eleizbidearen* eskumako aldean, hau da, San Pedro parrokiara daroan bidearen eskumako aldean (ermitatik 50 metro ingurura dago parrokia).

Ikaragarritzko guruztoki barrokoa da. 1716. urtean eraiki eben eta San Pedro Aita Santuaren ikurraren ondoan dago zizelkatuta data hori, hain zuzen bere, sarrerako arkuaren erdiko dobelan. Harlanduzko fatxada dauka, hareharritzkoa; material hori erabili eben eleizpeko zutabeak eta barrualdea egiteko bere, eta, han, gangaren nerbioak eta gangagiltzarriak nabarmentzen dira.

Fatxadan, bi nitxo dagoz Doloreetako Ama Birjinaren eta San Joanen tailuakaz. Ermitara sartzeko arkuak burdin forjatuzko sare eder batek ixten dau; burdin-sare horrek lora itxurako apaingarri ugari ditu. Tradizioaren arabera, burdinazko lora horreetako bati musua emoten deusienek denbora gitxian aurkituko dabe mutil-laguna edo neska-laguna.

Eleizpe zabal eta deigarria harriz lauzatuta dago eta bost zutabe toskanarrek eusten deutse; zutabe horreen fusteak zokalo-jarleku baten ginean bermatuta dagoz.

Barrualdean, erretaula barroko bat dago; han, Piedadearen Andre Mariaren irudia dago eta ezker-eskuma bi margolan ditu: bata San Paulo irudikatzen dau, eta, bestek, Paduako San Antonio. Erretaularen goialdean, erdialdean, Kristo Santu bat dago, eta, ezker-eskuma, Ama Birjina eta San Joan ditu. Alboko hormetan gurutze-bideko irudiak ikusi daitezke.

Irailaren 8an ospatzen dabe piedadeko eguna, Andre Mariaren jaiotza; meza egiten dabe egun horretan, baina ez antzinako erromeria. Jaiaren aurretik, *bederatziurrena* egiten dabe.



Se encuentra en el núcleo de Ugarana, a la derecha del *elezbide*, camino que conduce a la iglesia parroquial de San Pedro situada a unos 50 metros de ésta.

Es un monumental humilladero barroco cuya construcción data del año 1716, fecha que junto al símbolo papal de S. Pedro, aparece labrada en la dovela central de su arco de ingreso. La fachada está realizada en piedra de sillaría, toda de arenisca, material utilizado también, tanto en las columnas del pórtico como en parte del interior, donde resaltan los nervios y claves de su bóveda.

La fachada muestra dos hornacinas con tallas de La Dolorosa y de San Juan. El arco de entrada a la ermita está cerrado por una bella verja barroca de hierro forjado, con una profusa decoración de motivos florales. Según la tradición, quienes besen alguna de las flores de hierro situadas en dicho enrejado, en poco tiempo encontrarán novio o novia.

El espacioso y llamativo pórtico, pavimentado con losas de piedra, está sustentado por 5 columnas toscanas cuyos fustes se apoyan sobre un zócalo-banco.

El interior guarda un retablo barroco presidido por una imagen de Ntra. Sra. de la Piedad, advocación a la que está dedicada la ermita, y a ambos lados de ésta, dos pinturas que representan a San Pablo y San Antonio de Padua. En lo alto del retablo, en el centro, un Santo Cristo flanqueado por la Virgen y San Juan. Distribuidas a lo largo de las paredes laterales, pueden verse las diferentes escenas del Vía Crucis.

La fiesta de la ermita tiene lugar el día 8 de septiembre, festividad de la Natividad de Ntra. Sra., celebrándose una misa, aunque no la romería de antaño. A la fiesta le precede un novenario, *bederatziurrena*.

SAN BALENTIN ERMITEA

en bereko auzunean dago, Dimatik Obara doan bi-
bearen ondoan.

gizaldiaren amaieran Simon Bernardo Izagakoa sustatuta. XVIII. eta XIX. politikaria izan zan Simon Izagakoa Zamakola eta auzunean jaio zan, Indusi. amakolaren jauregiagaz i eben (Silberio edo San ena eukan); ermitearen jauregi hori, bidearen ermitea zurezko hesi batek onikoa da hori bide ondoko tan. Fatxadako teilatu- en deutsien besoen artean e txiki bat dago.

dean (harriz lau zatuta utako zurezko erretaula teresgarria dago; 12 apos- z han eta, hareen alboetan, irudi honeek dagoz: Ama eazagaz eta San Balentin.



an, zuraren eta ikatzaren salmentagaz finantzatzen zan ermita horren lana; izan bere, ermitearen jabegoko lau mendietatik lortzen ebezan itza.

metik ospatzen da San Balentin eguna, Gelasio I.a aita santuak erlijino- ontuan hartu ebanetik (seguruenik "Luperciales" deritzon jai paganoa smoz egin eban hori). San Valentin abade erromatarra izan zan eta uta hil zan 270. urteko zezeilaren 14an; izan bere, Claudio II.a earen aginduei muzin egin eta bikote ugari ezkutuan ezkontzea tsien.

gun, zezeilaren 14an, San Balentin egunean, ermitea zabaldu egiten ezea emoten dabe zaindariaren omenez. Lehen, ohitura zan Santa bederatziurrena egitea.

Está situada en el barrio homónimo, junto a la carretera de Dima a Oba.

Su construcción fue promovida a finales del siglo XVIII por Simón Bernardo de Izaga Zamacola, político vizcaíno de los siglos XVIII-XIX nacido en la barriada de Zamakola, en Indusi. Fue levantada al mismo tiempo que la casa-palacio de éste, conocida como de Silverio o de San Valentín y que se halla frente a la ermita, al otro lado de la carretera. La ermita está cerrada por una reja de madera, como es habitual en los humilladeros situados junto al camino. Entre los jabalcones que sustentan el alero de su fachada se sitúa un pequeño campanil.

El interior, pavimentado con losas de piedra, muestra un pequeño pero interesante retablo de madera tallada, con los doce apóstoles, y a sus lados, dos hornacinas con las imágenes de la Virgen con el Niño y de San Valentín.

Para ayudar a su mantenimiento, en el pasado esta ermita se financiaba con la venta de la madera y el carbón producidos en cuatro montes de su propiedad.

La festividad de San Valentín se celebra desde el año 498, fecha en la que el papa Gelasio I, posiblemente con la intención de eliminar la fiesta pagana de las "Luperciales", la incluyó en el calendario religioso. Cuenta la tradición que San Valentín fue un sacerdote romano que murió martirizado el 14 de febrero del año 270, tras ser acusado de casar en secreto a decenas de parejas, desobedeciendo las órdenes del emperador Claudio II.

Todavía hoy, cada 14 de Febrero, festividad de San Valentín, la ermita abre sus puertas, celebrándose una misa para honrar a su patrón. En el pasado, era costumbre hacer la novena a Santa Agueda.

SAN

Izaga-
Dima-
r-
hasieran,
("Jandone-
ziran Santu-
Erdi Aroa-

Noiz e-
urteko ida-
ermita bat-
kobe izen-
egungo er-
aldatu eb-
ebezan la-
inskripzio-
adierazten

Zurez-
ermitearen
torneatuko
bere. Barru-
deutsan sa-
Santu ho-
irudikatzen
barria zela-

Santiag-
Joan apost-
ostean, Sa-
Jerusalem-
Agripa I.aren
kostaldean
Santiago) e-

Antzina-
horreek osa-
osatze-
bedeinkatz-

Garaga-
egiten dabe
erreguka jo-

SANTIAGO APOSTOLUAREN ERMITEA

Izen bereko auzunean dago, Dimatik Artaunera doan bidearen ezker aldean. Seguruenik, hasieran, ermita-gurutzotoki horretatik ("Jandonekobe" esaten deutsie) pasatuko ziran Santiagora joaten ziran erromesak Erdi Aroan.

Noiz eraiki zan ez dakigun arren, 1519. urteko idatzietan jasota egoan izen bereko ermita bat Diman, seguruenik Jandonekobe izeneko baserriaren ondoan, gaur egungo ermita baino goraxeago. 1847an aldatu eben lekuz eta 1849an amaitu ebezan lanak, ermitearen fatxadako inskripzioak eleizpe txikiaren barruan adierazten dauan legez.

Zurezko hesi batek bereizten ditu ermitearen barrualdea eta eleiz ataria, zur torneatuko hesi simple batek, hain zuzen bere. Barrualdean, ermiteari izena emoten deutsan santua dago: Santiago *Erromesa*. Santu horren ondoan, koadro batek irudikatzen dau aingeru batek Santa Anari barria zelari emoten deutsan.

Santiagori *Nagusia* bere esaten eutsien eta Betsaidan (Galilea) jaio zan. San Joan apostoluaren anaia zan. Tradizioaren arabera, Mediterraneoan zeharkatu ostein, Santiago Hispaniara heldu zan eta Ebanjelioa emon eban aditzera; Jerusalemara itzuli ostein, martiritatuta hil zan 44. urte inguru ebazalarik, Herodes Agripa I.aren aginduz. Kondairaren arabera, Mediterraneoan zeharkatu eta Atlantikoko kostaldearen ertzetik ibili ostein, haren dizipuluek Iria Flaviara (gaur egungo Santiago) eroan eben Santiagoren gorpua, eta han lurperatu eben.

Antzina, buruko minak izaten ebezanak joaten ziran ermita horretara, gaixotasun horreek osatzeko eskatzera. Santiagori bere erregutu izan jako azaleko gaixotasunak osatzeko. Lehen, ohitura zan ermitatik hur egoan iturburuko ur sufretsua bedeinkatzea, eta, gero, ur hori azaleko erupzioetan emotea.

Garagarrilaren 25ean, Santiago egunean, meza emon eta erromeria herrikoia egiten dabe. 70eko hamarkadara arte, Igokunde jaiaren aurreko martitzenean, erreguka joaten ziran ermita horretara Dimako parrokiatik.



Está situada en el barrio que lleva su nombre, a la vera izquierda de la carretera de Dima a Artaun. Posiblemente, el origen de esta ermita-humilladero, conocida como "Jandonekobe", esté relacionado con el tránsito de los peregrinos hacia Santiago durante la Edad Media.

A pesar de que se desconoce la fecha de su construcción, la existencia en Dima de una ermita bajo esta advocación ya aparece documentada en 1519, aunque en un lugar próximo al actual, posiblemente junto al caserío Jandonekobe, más arriba de la actual ermita. Dicho traslado se realizó en 1847 y la finalización de la obra en 1849, tal y como lo atestigua la inscripción realizada en su fachada, dentro del pequeño pórtico.

El interior de la ermita, separado del atrio mediante una sencilla reja de madera tomeada, está presidido por una imagen de su santo titular: Santiago *Peregrino*. Junto a éste, un cuadro que representa la Anunciación del ángel a Santa Ana.

Santiago, conocido como *el Mayor*, nació en Betsaida (Galilea). Fue hermano del también apóstol San Juan.

Cuenta la tradición que tras atravesar el Mediterráneo, Santiago llegó a Hispania donde predicó el evangelio, y que tras regresar a Jerusalén murió martirizado hacia el año 44 por orden de Herodes Agripa I. Según la leyenda, tras cruzar el Mediterráneo y bordear la costa atlántica, sus discípulos habrían llevado el cuerpo de Santiago hasta Iria Flavia (actual Santiago de Compostela), donde fue enterrado.

Antiguamente, era costumbre que quienes padecían jaquecas y dolores de cabeza acudiesen a esta ermita para solicitar la curación de dichos males. También se ha invocado a Santiago para la curación de afecciones dermatológicas. En el pasado era habitual bendecir agua sulfurosa del manantial próximo a la ermita y aplicarla posteriormente sobre los granos.

El día 25 de julio, festividad de Santiago, se celebra misa y romería popular. Hasta la década de los 70, el martes anterior a la festividad de la Ascensión, se acudía en rogativa a esta ermita desde la parroquia de Dima.

SANTA AGEDA ERMITEA

Ermita hau da Arratiako bailarako zaharrenetakoa, bai eta balio artistiko handienetakoa daukan Dimako ermitetako bat bere. Antzina, Bikarregi kofradiaren egoitza izan zan.

Ermitea zein urtetan eraiki eben ez dakigun arren, haren arkitektura-elementu batzuek, esate baterako, gurutze-gangak (ganga-giltzarian, Ama Birjina Umeagaz deritzen irudia dago), aurpegia irudikatzen daben mentsulek edo burualdeko arrosotai gotikoak, aditzera emoten dabe XV. gizaldirako eraiki ebela ermitea.

Santa Agedaren (III. gizaldiko martiri siziliarra) omenez eraiki eben; "Bikarregiko Andra Mari" bere esaten deusie, eta, ermitearen barrualdean, Ebanjelioaren aldean dago haren irudia. Ondoan, Epistolaren aldean, Santa Agedaren eta Santa Luziaren irudiak dagoz. Ebanjelioaren ondoan, zurezko pulpitu txiki bat bere badago.

Eleizpeak guztiz inguratzen dau ermitea eta hango lurra harri-zolaz eginda dago. Atzealdean *bolaleku* moduan erabiltzen da.

Ermitara sartzeko sarrera-arkua burdin forjatuzko burdin-sare batek ixten dau, eta, txikiagoa izan arren, haren diseinua eta apaingarriak Ugaranako Piedadearen ermitearen antzekoak dira.

Antzina, andrazkoak ermitara joaten ziran Santa Agedari beren bularrak osatzeko eskatzera. Beren seme-alabei bularra emoteko gai ez ziran andrazkoek bere eskatzen eutsien laguntza. Gizonak garriko mina arintzeko eskatuz joaten ziran hara.

Gaur egun, nahiz eta erromeria egiten eben sasoietan beste jende ez joan, Santa Ageda eguna ospatzen dabe zezeilaren 5ean; Santa Luzia eguna, gabonilaren 13an, eta Andre Mariaren eguna, agorrilaren 15ean. Antzina, errogatibak eginez igotzen ziran Dimako parrokiatik, Igokundearen aurreko hirugarren egunean.



Esta ermita, considerada como una de las más antiguas del valle de Arratia, es también una de las de mayor calidad artística de Dima. En el pasado fue sede de la cofradía de Bikarregi.

Aunque se desconoce la fecha de su fundación, algunos de los elementos arquitectónicos, como la bóveda de crucería en cuya clave está representada la imagen de la Virgen con el Niño, las ménsulas con forma de rostro humano, o el rosetón gótico de la cabecera, inducen a pensar que ya existía en el siglo XV.

Dedicada a Santa Águeda, mártir siciliana del siglo III, es también conocida como "Andra Mari de Bikarregi", advocación mariana cuya antigua imagen, situada en el lado del Evangelio, preside su interior.

Junto a ella, en el lado de la Epístola, se encuentran las de Santa Águeda y Santa Lucía. Conserva un pequeño púlpito de madera en el lado del Evangelio.

La ermita está totalmente rodeada por un pórtico cuyo suelo muestra un interesante empedrado de cantos rodados. La parte posterior se utiliza como *bolaleku*. El arco que da entrada al interior de la ermita está cerrado por una reja de forja que, aunque de menores proporciones, su diseño y motivos decorativos recuerdan al de la Piedad de Ugarana.

Antiguamente, era costumbre que acudiesen a esta ermita las mujeres que deseaban solicitar la ayuda de Santa Águeda para la curación de los pechos. También lo hacían las madres que carecían de leche para amamantar a sus hijos. Los hombres solían recurrir demandando alivio para las dolencias de la cintura, *garrikomiñe*.

Todavía hoy, aunque sin la afluencia de gente de otras épocas en las que se hacía romería, se siguen celebrando las festividades de Santa Águeda (5 de febrero), Santa Lucía (13 de diciembre) y Andra Mari (15 de agosto). Antaño se subía en rogativa desde la parroquia de Dima, el tercer día anterior a la Ascensión.

SAN MILLAN ERMITEA

Biteriño auzunean dago, Dimatik Artanera doan bidearen ondoan. XVIII. gizaldiko gurutzoki barrokoa da, baina baliteke XV. gizaldikoa izatea ermitea. Halan da bere, hasierako ermitea gaur egungoaren kokalekutik 300 metrora egoan, *San Milian-zar* toponimoak adierazten deuskun moduan (gaur egun, oraindino bere, erabiltzen da).

Sasoi hartakoak litzakez bi giza bururen tailuak, gizonetako eta andre batenak (maskaroi itxura dabe), Santiagoren gurutzea daukan armariaren ondoan dagoz bi tailu horreek, sarrerako zurezko hesiaren gainean. Horreek hasierako gangaren ganga-giltzarriak izan eitekezan. Armariak zerikusia izan leike Urizarreko Ortuño jaunagaz (Santiagoko ordenako zalduna) edo Santiago bideko erromesak igarotzeagaz. Barutaldean apaingarri gixi dagoan arren, badauka erretaula txiki bat eta haren erdialdean dago San Millanen irudia; irudi horren aldamenen, Ama Birjina Sortzez Garbiaren eta Jesusen Bihotzaren irudiak dagoz. Ermita horretan, Paduako San Antonioren eta San Joseren irudiak eta Aita Domingo Iturrate Beatoaren (ermitatik oso hur dagoan baserri baten jaio zan) margolana bere badagoz.

Gurutzoki edo "santutxu" hori aipatzen dabe Kalahorrako Diozesiko Artxibategiaren dokumentu baten, 1771. eta 1775. urteen artean Diman egozan 16 ermitei buruzko dokumentuan, hain zuzen bere.

San Millanek emoten deutso izena ermiteari (*Aemilianus* izen latindarraren transkripzioa), eta santu hori asko gurtu eben Goiz Erdi Aroan. VI. gizaldian jaio zan Vergegie, gaur egungo Errioxako Berceo herrian. Dinoenez, oso bizitza eremutarra izan eban, eta, abade egin ostean, La Cogollako mendilerroa joan zan bizitzera.

Bizi izan zan bitartean izandako onberatasunari eta egin ebazan mirariei esker gizon santutzat eben. Bere aldarrietan esaten ebanez, behartsuen artean ondasunak banatzea zan Eleizaren ondasunak administratzeko modu egokiena; horixe egin eban eta arazo larriak sortu eutsezan ebatzi horrek eleizako agintariekaz. Ermitearen jaia zemendiaren 12an ospatzen dabe, San Millan egunean (San Emilianoren eguna egutegi hispaniar-mozarabiarrean).

Gaur egun, meza bat egiten dabe, baina, sasoi baten, erromeria bere egiten eben.



Se encuentra en la barriada de Biteriño, junto a la carretera de Dima a Artan. Es un pequeño humilladero barroco del siglo XVIII, aunque es posible que sus orígenes se remonten al siglo XV. En cualquier caso, la primitiva ermita estuvo emplazada a unos 300 metros de la actual ubicación, tal como nos indica el topónimo de *San Milian-zar* que aún hoy en día se conserva.

A esa época corresponderían dos tallas de cabezas humanas, las de un hombre y una mujer, en forma de mascarones, que flanquean el escudo con la cruz de Santiago situado sobre la reja de madera de la entrada. Estas podrían haber sido claves de bóveda de la primitiva ermita. El escudo podría estar relacionado, bien con Don Ortuño de Urizar, caballero de la Orden de Santiago, o con el tránsito de los peregrinos de la ruta jacobea. Aunque su interior es modesto, posee un pequeño retablo cuyo cuerpo central lo ocupa la imagen de San Millán, flanqueado en los laterales por la Purísima y el Sagrado Corazón. Guarda también las imágenes de San Antonio de Padua y San José, así como un cuadro del Beato Padre Domingo Iturrate, nacido en un caserío próximo a la ermita.

Este humilladero o "santutxu" ya aparece citado en un documento del Archivo de la Diócesis de Calahorra que hace referencia a las 16 ermitas existentes en Dima entre 1.771 y 1.775

Su santo titular, San Millán, transcripción del nombre latino *Aemilianus*, fue muy venerado en la Alta Edad Media. Nacido en el siglo VI en Vergegí, la actual población riojana de Berceo, se dice que llevó una vida eremítica y tras ser ordenado sacerdote se retiró a la sierra de La Cogolla.

Ya en vida, su bondad y los milagros por él realizados hicieron que fuese considerado un hombre santo. En sus proclamas afirmaba que la mejor forma de administrar los bienes de la Iglesia era repartirlos entre los pobres, cosa que puso en práctica y que le acarreo serios problemas con las autoridades eclesiásticas. La fiesta de la ermita se celebra el día 12 de noviembre, festividad de San Millán, San Emiliano en el calendario Hispano-Mozárabe.

Actualmente se celebra una misa, pero en el pasado también se hacía una romería.

SAN BIZENTE ERMITEA

Artaun auzunean dago, Bikarregi kofradian. Jatorrizko ermitea, *San Bixenti-zarra*, gaur egungo ermitatik ehun metro ingurura egoan. Oraindino gordeta dago *San Bixenti-zarrako* irudia, gurtzarako berreskuratu baieben ermitea azkenegoz zaharbarritu ostean.

Eraikinak bi uretako estalpea dauka eta eleizpeak aurrealdea eta eraikinaren albo bat inguratzen ditu. Eraikinaren albo horretan, "bolatokia" dago, udalerriko ermitetan oso ohikoa eta tradizio handikoa izan dan kirol-eremua.

Ermitearen barrualdean, San Bizenteren irudia dago; haren omenez eraiki eben ermitea eta Artaun auzunearen zaindaria da. San Isidroren eta Lordako Andre Mariaren irudiak ditu aldamenean.



San Bizente Hispania erromatarreko santurik garrantzitsuenetakoa izan da. Caesaraugustan jaio zan, gaur egungo Zaragozan. III. eta IV. gizaldien artean bizi izan zan, eta San Valeroren (hiri horretako apezpikua) diakonoa edo laguntzailea izan zan. Dioclecianoren jazarpenaren sasoiari, biak atxilotu ebezan Daciano gobernadorearen aginduz eta Valentziara eroan ebezan. Han, torturatu eta martiritatu egin eben San Bizente.

Orain dala gitxi arte, txingorra egin behar ebalá emoten ebanean, auzotarrek ermita horren eleizpera ateratzen eben San Bizenteren irudia, kanpaiak jotzen ebezan bitartean, ekaitza urruntzeko eta uztak mantentzeko.

San Bizente eguna (urtarrilaren 22a) da neguko egutegi herrikoiairen ohiko data: *San Bizente hotza, neguaren bihotza*, baina, azken urteotan, Artaunek agorrilako lehenengo domekan ospatzen dau. Egun horretan, meza ospatzen dabe eta han bedeinkatzen dabe ortuetara isuriko daben ura, ortuak babesteko asmoz. Antzina, prozesinoan urtetan eben ermitearen inguruan, eta, San Isidro egunean bere, maiatzaren 15ean, meza ospatzen eben.

Está situada en el barrio de Artaun, cofradía de Bikarregi. La ermita primitiva, *San Bixenti-zarra*, estuvo emplazada a unos 100 m. de la actual ubicación. Aún se conserva la imagen de *San Bixenti-zarra*, recuperada para el culto tras la última restauración.

El edificio, con cubierta a dos aguas, cuenta con un pórtico que lo envuelve tanto en su fachada principal como en uno de los muros laterales, donde se sitúa el "bolatoki", espacio deportivo muy común y tradicional en las ermitas del municipio.

Su interior está presidido por la imagen de San Vicente, titular de la ermita y patrón del barrio de Artaun. Le acompañan las imágenes de San Isidro y Virgen de Lourdes.

San Vicente ha estado tradicionalmente considerado como uno de los santos más relevantes de la Hispania romana. Nacido en Caesaraugusta, la actual Zaragoza, vivió entre los siglos III y IV y fue diácono o ayudante de San Valero, obispo de esa ciudad. Durante las persecuciones de Diocleciano, ambos fueron apresados por orden del gobernador Daciano y llevados a Valencia, donde Vicente sufrió tortura y martirio.

Hasta épocas relativamente recientes, era costumbre que, ante la amenaza de granizo, los vecinos sacasen al pórtico de esta ermita la imagen de San Vicente, mientras se tañía la campana para ahuyentar la tormenta y preservar las cosechas.

La festividad de San Vicente, el 22 de Enero, es una de las clásicas del calendario popular de invierno: "*San Bizente hotza, neguaren bihotza*", aunque en los últimos años, el barrio de Artaun la celebra el primer domingo de agosto. Ese día se celebra misa y en ella se bendice el agua que después será arrojada a las huertas, como medida de protección. Antaño, este día se salía en procesión alrededor de la ermita y el 15 de mayo, festividad de San Isidro, también se oficiaba misa.

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN ERMITEA

Oba auzunean dago eta iraganean hango kofradiaren egoitza izan zan. San Antolingo ermitea bere esaten deutsie (bi santuen izenak hartzen ditu).

Eleizpeak guztiz inguratzen dau ermita zabala, Epistolaren eta Ebanjelioaren aldeak biak, eta zati bat itxita dago. Aldeetako baten, ipar-ekialdean, harrizko mahai bat eta zurezko jarlekuak ikusi daitezke; horreek gogorazten dabe sasoi baten han batzen zala kofradiako kontzejua.

Barrualdean, San Joan Bataiatzailearen eta San Antolinen irudiak nabarmetzen dira; bien jaiegunak, bagilaren 24an eta irailaren 2an, hurrenez hurren, ospatzen dira. Aspaldikoa da jai zaletasuna auzune honetan, eta horren adierazle da ermitearen ondoan egon zan zezen-plaza finkoa; harlanduzko horma lodiz eraikita egoan eta, han, zezenketak izaten ziran auzuneko jaietan.

Ermita horretan gordetzen daben Kristoa dagoeneko desagertuta dagoan *Aitakurutzeko* izeneko ermitakoa da; Inunganen egoan ermita hori, Mañariko eta Dimako ermitea zan. San Antonio Abaden irudia bere badago San Joan Bataiatzailearen ermitan. Urtarrilaren 17an da haren eguna eta meza emoten dabe egun horretan; gero, animaliak bedeinkatzen dabez ermitearen ondoko plazan. Plaza horretan dagoz egun horretan han egiten ziran idi-probetan erabilitako harri zaharrak (idiek harri bat eroaten dabe arrastaka).

Antzina, San Joan egunean (eleiza katolikoak lotu ebazan udako solstizioaren antzinako jai paganoa eta San Joan eguna), ohitura zan baserrietako bizilagunak goizaldean bedarretan oinutsik ibiltzea, oinak inontzagaz bustitzeko eta, halan, beren ustez, inontzaren onurez gozatzeko.



Está situada en el barrio de Oba y en el pasado fue sede de su cofradía. También es conocida como ermita de San Antolín, advocación que en cierto modo comparte la titularidad de ésta.

La espaciosa ermita está totalmente rodeada por un pórtico, en parte cerrado, a los pies y al lado de la Epístola y del Evangelio. En uno de sus lados, al NE., puede verse una mesa de piedra y bancos de madera, que rememoran aquella en la que antiguamente se reunía el concejo de la cofradía.

Su interior está presidido por las imágenes de San Juan Bautista y de San Antolín, cuyas festividades, el 24 de junio y el 2 de septiembre, fueron muy celebradas en el pasado. Prueba de ello es que junto a la ermita existió una plaza de toros fija construida con gruesos muros de sillería, en la que se celebraban festejos taurinos durante las festividades del barrio.

El Cristo que se conserva en esta ermita procede de la desaparecida y popularmente denominada *Aitakurutzeko*, en Inungane, perteneciente en común a Mañaria y a Dima. También está presente la imagen de San Antonio Abad, cuya festividad, el 17 de enero, se celebra misa y tras la que se procede a la bendición de los animales en la plaza adjunta a la ermita. En dicha plaza se conservan las antiguas piedras utilizadas en las tradicionales “*idi-probak*” (arrastre de piedra con bueyes) que se celebraban ese día.

Antiguamente, el día de San Juan, festividad asociada por la Iglesia Católica a la ancestral fiesta pagana del solsticio de verano, era costumbre que al amanecer, las gentes de los caseríos caminasen descalzas sobre la hierba para impregnarse del rocío, beneficiándose así de sus, al parecer, mágicas propiedades.

SANTA APOLONIAREN ERMITEA

Bargondia auzunean dago (auzunetik 100 metro aparte); Dimatik Baltzolarako doan bidearen ezkerre-rantz egiten dauan bidezidorra hartuta aurkitzen da.

Seguruenik, eraikina XVI. gizaldikoa izan arren, Erdi Aroan Santa Apoloniarenganako debozino handia ebela kontuan izanda, posible da ermitea lehenagokoa izatea.

Barrualdean, apaindura giti dago eta Santa Apoloniaren irudia nabarmentzen da burualdean; harigarria bada bere, kurrika barik irudikatua dago (oso ohikoak dira kurrikak haren ikonografian). Santa Apoloniaren ondoan, zehatz-mehatz zer dan ez dakien irudi bat (Jesus Umea edo Ama Birjina Umea izan daike) eta Ama Birjina Mirarietakoaren irudia dagoz.

Ermiteak bi isurkiko aterpea dauka kanpai-horma bategaz errematatuta; seguruenik, zaharbarritzetako baten eraikiko eben aurrekoaren lekuan. Bai oinean bai alboetako baten (Ebanjeliokoan, hain zuzen bere), ermiteak eleizpe bat dauka eta biltoki eta jolasleku moduan erabiltzen dabe: *bolalekua*.

Martirologioaren arabera, Santa Apolonia Alexandrian jaio zan III. gizaldian. Jazarri eben eta bere fede kristauari uko egin ekion saiatu ziran (alperrik, halan da bere); esaten dabenez, sugarretan hil aurretik, bere borroeroek haginak apurtu eutsiezan harrika.

Arrazoi hori dala-eta, hagin eta albo-haginetako gaitzei kontra egiten laguntzen dauala uste dabe sinestunek eta dentisten zaindaria da. Horregatik, Diman ohitura izan da ermita horretara joatea Santa Apoloniari hagineta mina osatzeko eskatzera.

Ohiturari jarraituz, zezeilaren 9an, Bargondia auzuneak bere eguna ospatzen dau santuaren aldeko meza bategaz.



Está situada en el barrio de Bargondia, a 100 metros, tomando un sendero que parte a la izquierda de la carretera de Dima a Baltzola.

Aunque probablemente el edificio data del siglo XVI, teniendo en cuenta que la devoción por Santa Apolonia estuvo muy extendida durante la Edad Media, es posible que sus orígenes sean anteriores a ese siglo.

El interior, austero, está presidido en su cabecera por la imagen de Santa Apolonia, curiosamente representada sin las tenazas que habitualmente porta en su iconografía. Junto a ella, una imagen cuya identificación no está clara, y que bien podría tratarse de un Jesús Niño o la Virgen Niña, y otra de la Virgen Milagrosa.

La ermita, con cubierta a dos aguas, está rematada por una espadaña, posiblemente levantada en alguna de las reformas, sustituyendo tal vez a otra anterior. Tanto a sus pies como en uno de los laterales, el del Evangelio, la ermita cuenta con un pórtico utilizado como lugar de reunión y espacio lúdico: *bolaleku*.

Según el martirologio, Santa Apolonia nació en Alejandría en el siglo III. Perseguida e inútilmente obligada a renegar de su fe cristiana, se dice que antes de morir entre las llamas, sus verdugos le destrozaron los dientes con una piedra.

Por tal motivo, es considerada abogada contra los males de la dentadura, siendo patrona de los dentistas. Por ello, en Dima ha sido costumbre acudir a esta ermita para invocar a Santa Apolonia para la curación de los dolores de muelas.

Siguiendo la tradición, cada nueve de febrero, el barrio de Bargondia sigue celebrando su festividad con una misa en su honor.

SANTA MAÑE ERMITEA

Bargondia auzunean dago, handik hurbagoan Santa Apoloniaiko ermitea legez, Dima eta Mañaria herriak elkartzen ebazan galtzada zaharraren ondoan (gaur egun ia desagertu da).

Santa Mañeren (Santa Marina) omenezko ermita asko dago Santiago bidean zehar (Dimakoaren moduan) penintsularen iparraldean; datu horrek ermitearen antzinatea buruzko ideia bat emoten deusku. Santa Mañe izeneko ermita ia guztiak bidearen ondoan dagoz.

Bargondiaiko Santa Mañe ermitan, sinpletasuna edertasuna da; beharbada, bere isolamenduak eta inguruak nabarmentzen dabe edertasun hori.



Oinplano angeluzuzena dauka; eleizpea, harriz lauzatua, zurezko hesi batek bereizten dau barrualdetik. Hormetan, bi zulo baino ez dagoz; zulo horreetako bat, burualdean erdiratuta dagoana, gezileiho bat da. Leiho horren gainean, ermitako irudi bakarra dago oinazpi baten: Santa Mañerena.

Santa Mañe 119. urte inguruan jaio zan *Balcagia*n, Pontevedrako gaur egungo Baionan.

Esaten dabenez, Lucio Castelio Severoren (*Gallaeciako* eta *Lusitaniako* gobernadore erromatarra) alaba zan.

Kristau egin ostean, bere aitak jazarri eta epaitu egin eban eta martiritatuta hil zan 20 urte ebazala. Garagarriaren 18an da haren jaieguna.

Está situada en el barrio de Bargondia, y como la cercana ermita de Santa Apolonia, se encuentra junto a la antigua calzada, hoy prácticamente desaparecida, que unía las poblaciones de Dima y Mañaria.

Las ermitas bajo la advocación de Santa Marina, como ésta de Dima, son muy numerosas a lo largo de todo el camino de Santiago en el norte peninsular, dato que nos puede sugerir bastante sobre su antigüedad. Prácticamente todas ellas se encuentran a pie de camino.

Santa Marina de Bargondia es una ermita en la que su sencillez se traduce en belleza, quizá realizada por su aislamiento y entorno.

De planta rectangular, cuenta con un pórtico a sus pies, pavimentado con losas de piedra y separado del interior mediante un enrejado de madera. En sus muros se abren tan solo dos huecos, uno de ellos, el centrado sobre su cabecera, es una aspillera. Sobre ella, en una peana, la única imagen existente en la ermita: la de Santa Marina.

Santa Marina nació hacia el año 119 en *Balcagia*, la actual Bayona de Pontevedra. Se dice que fue hija de Lucio Castelio Severo, gobernador romano de *Gallaecia* y *Lusitania*.

Tras abrazar la fe cristiana, cuenta la tradición que fue perseguida y juzgada por su propio padre, muriendo martirizada a la edad de veinte años. Su festividad se celebra el día dieciocho de julio.

SAN LORENTZO ERMITEA

Baltzolan dago. Kala-horako Diozesiko artxibategiaren dokumentu baten aipatzen da ermita hau, 1771. eta 1775. urteen artean Diman egozan beste ermiten artean. Urte hareetan, dokumentuan azaltzen danez, mendi bat eukan ermita horrek, eta hamar urtetik behin 160 egurkarga ateratzen ziran egurikatza egiteko. Egurikatze hori salduta lortutako diruagaz mantentzen eben ermitea.

Hasierako ermitea ez dakie noiz eraiki eben; seguruenik, XV. edo XVI. gizaldikoa izango da, eta 1924an eraitsi eben egoera txarrean egoalako. Gaur egungo ermitea leku berean dago.



Fatxada nagusia (kanpai-horma bategaz errematatua) eta alboetako bat (Ebanjelioaren alde) eleizpe batek inguratzen ditu, eta, Ebanjelioaren aldean, ohiko funtzioa betetzen dau eleizpeak: *bolalekua*.

San Lorentzoren irudia nabarmentzen da barrualdean. Huescan jaio zan martiri hura eta parrilla baten gainean hil zan sutan. Erroman gertatu zan hori, 258. urtean, Valeriano I.a Enperadorearen jazarpen-sasoian. Haren irudiaren ondoan, Andre Maria Birjina Sortzez Garbiaren eta Jesusen Bihotzaren irudiak dagoz.

Ohiturari jarraituz, agorrilaren 10ean, San Lorentzoren jaia ospatzen dabe Baltzolan, eta, zaindariaren omenez meza emon eta gero, erromeria egiten dabe ermitearen inguruko zelaian. Era berean, zezeilaren 11n, Lurdesko Ama Birjinaren jaian, meza ospatzen dabe ermitatik hur dagoan haizulo artifizialean (hantxe erakusten dabe ama birjinaren irudia).

Está situada en el barrio de Baltzola. Es una de las ermitas citadas en un documento de los archivos de la Diócesis de Calahorra, en el que se hace referencia a las ermitas existentes en Dima entre los años 1.771 y 1.775. En esas mismas fechas, se hace mención a que dicha ermita contaba entre sus bienes con la propiedad de un monte del que, cada decenio, se extraían 160 cargas de leña para la elaboración de carbón vegetal, cuya venta estaba destinada al mantenimiento de la misma.

La primitiva ermita, de la que se desconoce su fecha de construcción y cuyos orígenes posiblemente se remontasen a los siglos XV o XVI, fue derribada en 1924 debido a su ruinoso estado. La actual ocupa el mismo emplazamiento.

Tanto su fachada principal, rematada por una espadaña, como uno de los laterales, el del lado del Evangelio, están envueltos por un pórtico que, en el segundo caso, ha cumplido la tradicional función de *bolaleku*.

El interior está presidido por la imagen de San Lorenzo, el mártir nacido en Huesca y muerto en la hoguera sobre una parrilla. Esto sucedía en Roma el año 258, durante la persecución del Emperador Valeriano I. Junto a su imagen, también se encuentran las de la Inmaculada Concepción y el Sagrado Corazón.

Siguiendo la tradición, el día 10 de agosto, festividad de San Lorenzo, el barrio de Baltzola honra a su patrón con la celebración de una misa y posterior romería en las campas que circundan la ermita. También el 11 de febrero, festividad de la Virgen de Lourdes, se sigue celebrado una misa en la gruta artificial próxima a la ermita, donde se expone su imagen.

SAN IGNAZIOREN ERMITEA

Arostegieta auzunean dago eta, iraganean, hango kofradiako egoitza izan zan. Aurretik, Santa Katalinaren omenezko ermitea izan zan, eta, dagozan dokumentu urrien arabera, 1770ean aldatu eutsien izena. Hala da bere, bi santuen izenak hartu ebazan ermiteak hurrengo hamarkadetan.

Hainbat eraldaketa egin dabez han; horreetako batzukaz, baina, ez dabe asmatu, esate baterako: kanpantorreagaz eta eleizpe txikiaren sarteran dagoan zementuzko arkuagaz.

Barrualdea zurezko hesi batek bereizten dau eleiz ataritik eta Loiolako San Ignazioaren irudia nabarmentzen da. Haren eskumako aldean martiri baten irudia dago, seguruenik Santa Katalinarena (aurreko santua). Ezkerrean, irudi gotiko bat dago, Santiago erromesarena izan daikenean.

San Ignazioaren bataio-izena Iñigo zan, eta Azpeitian jaio zan 1491. urtean Azpeitiko oinaztarren aldeko familia garrantzitsu baten. Nafarroako soldadu agramondarrek zauritu eben Iruñeko setioan; hori gertatu ostean, Loiolako bere etxera eroan eben. Eriondo egoala, Kristoren Bizitza eta beste hainbat santuren bizitzak irakurri ebazan, eta, lurreko gobernatzaileen zerbitzura lan egin beharrean, zeruko Erregearen aginduetara behar egitea erabaki eban. Parisen ikasten ebilen bitartean, sei lagun bildu ebazan eta Jesusen Lagundia sortu eban. Frantzisko Jasokoa eta Azpilikuetakoa, "San Frantzisko Xabierkoa", egoan lagun horreen artean.

1622an kanonizatu eben San Ignazio, 1556ko garagarriaren 31n hil eta 66 urte pasatu ostean. Egun horretan ospatzen dabe Arostegietan haren eguna, meza bategaz; antzina, erromeria bere egiten eben. Igokunde jaiaren aurreko eguaztenean, erreguka joaten ziran ermita horretara Dimako parrokiatik eta Lamindaoko Santa Maria Magdalenatik.



Está situada en el barrio de Arostegieta y en el pasado fue sede de su cofradía. Anteriormente estuvo dedicada a Santa Catalina, y según se desprende de la escasa documentación existente, fue hacia 1770 cuando cambió de advocación. No obstante, ambas fueron compartidas todavía durante décadas posteriores.

La ermita ha sufrido diversas transformaciones, algunas no muy acertadas, como la del campanil y el arco de cemento que da entrada al pequeño pórtico.

Su interior, separado del atrio mediante una reja de madera, está presidido por la imagen de San Ignacio de Loiola, y a su derecha la de una mártir, posiblemente Santa Catalina, antigua advocación de la ermita. A su izquierda, una imagen de indudable sabor gótico que bien podría ser la de Santiago peregrino.

San Ignacio, cuyo nombre de pila era Iñigo, nació en Azpeitia el año 1491, en el seno de una de las más notables familias del bando oñacino. Tras ser herido en Iruña durante el asedio de las tropas agramontesas navarras a esa ciudad, fue llevado a su casa de Loiola. Estando convaleciente, tras leer la Vida de Cristo y otras vidas de santos, se propuso no servir a gobernante alguno de la tierra sino al Rey del cielo. Mientras estudiaba en París, reunió a un grupo de seis compañeros con los que fundó la Compañía de Jesús. Entre ellos estaba Francisco de Jaso y Azpilicueta, "San Francisco Javier".

San Ignacio fue canonizado el año 1622, sesenta y seis años después de su muerte, acaecida el 31 de julio de 1556, día en el que el barrio de Arostegieta celebra su festividad con una misa; antaño además con romería. El miércoles anterior a la festividad de la Ascensión, se acudía a esta ermita en rogativa desde la parroquia de Dima y desde Sta. María Magdalena de Lamindano.

SANTA MARIA MAGDALENA ERMITEA

Lamindao auzunean dago eta Dimako ermita garrantzitsuenetakoa da. Iraganean, parrokia izan zan eta, horregatik, bataio-iturria eta kanposantua daukaz. Barrualdean egindako ehorzketek iradokitzen dabe kanposantua, jatorriz, tenpluaren barrualdean egoala.

Olabarri-Legizamon leinuaren jagoleztapean egon zan ermitea. 1551n, Lamindaoko kofradiako bizilagunek, *fiel erregidorea* ebelarik, honako hau eskatu eben: Bizkaiko Batzar Nagusietan ordezkaritza eukitea, berba egiteko eta bozkatzeko eskubideagaz. Baina ezetsi egin eben eskaera hori.

Ermitearen eraikitze-data ez dakigun arren, ezelango zalantza barik, XV. gizaldirako eraikita egoan; sasoi horretakoak dira, izan bere, ermitako sarrerak eta erretaluko Andre Mariaren irudia. Iraganean, Andre Mariaren izena eukan hasierako parrokiak: Lamindaoko Andre Maria.

Horixe dino auzotarrek ama birjinari abesten deutsien ereserkiak. Azkenengoz zaharbarritu ebenean, Kristo Santu bat ipini eta gurtzarako irudi batzuk kendu ebezan.

Burualdeko hormari atxikita, abade-etxea dago, eta, esaten dabenez, fraideak edo ermitauak bizi ziran han. Eleizpe batek guztiz inguratzen dau eraikina eta Ebanjelioaren alde *bolaleku* moduan erabiltzen eben.

Gaur egun ermiteari izena emoten deutsan santua, Maria Magdalena, "pekatarri" dalakoa, Magdalan jaio zan. Egindakoaz damutu ostein, itxuraz, Kristori lagundu eutsien andretako bat izan zan eta Kristo berpiztu ostein ikusi, agurtu eta ezagutu eban lehenengo pertsona bere bai.

Ohiturari jarraituz, Diman, "Magdalena" ri erregutu izan jako gaixo dagozan umeak, berba egiten motelak diranak edota izaera menderakaitza daukeenak osatu daitezkan; azken horreek ermitara eroaten ebezan bedeinkatzera. Limosneagaz eskertzen eutsien; hain zuzen bere, umearen pisua, gitxi gorabehera, kilo-garitan emoten eutsien. Trumoi edo hodeiaren eta harri-jasaren aurka bere erregutzen eutsien.

"Magdalena" eguna, garagarriaren 22a, betidanik ospatu izan da Lamindaon. Antzina, meza bere egiten eben irailaren 8an, hau da, Andre Mariaren jaiotza egunean, eta, Igokunde jaiaren aurreko astelehenean erreguteak egiten ebezan.



Situada en el barrio de Lamindano, es una de las ermitas con más entidad de Dima. En el pasado fue parroquia, lo que justifica que contase con pila bautismal y cementerio, éste último originalmente dentro del templo. Así lo sugieren los enterramientos aparecidos en su interior.

Estuvo bajo el patronazgo del solar de Olabarri-Leguizamon. En 1551 los vecinos de la cofradía de Lamindano, que ya contaban con fiel regidor propio, solicitaron estar representados con voz y voto en la Juntas Generales de Bizkaia, pero dicha petición fue desestimada.

Aunque se desconoce el año de su fundación, no hay duda de que ya existía en el siglo XV, época a la que, además de sus accesos, pertenece la Andra Mari que presidía su retablo, en el pasado advocación titular de la primitiva parroquia, Ntra. Sra. de Lamindano.

Así lo refleja la letra del himno que las gentes de ese barrio cantan a la Virgen. Tras la última restauración, la ermita está presidida por un santo Cristo, habiéndose retirado algunas imágenes del culto.

Adosada al muro de su cabecera, se encuentra la casa cural de la que se dice haber estado habitada por monjes o ermitaños. El edificio está totalmente rodeado por un pórtico, que por el lado del Evangelio se utilizaba como *bolaleku*.

Su actual santa titular, María Magdalena, popularmente conocida como "la pecadora", nació en Magdala. Tras su arrepentimiento, fue al parecer una de las mujeres que acompañó a Cristo, siendo la primera persona que lo vio, saludó y reconoció tras su resurrección.

Tradicionalmente, en Dima se ha invocado a la "Madalena" para la curación de los niños enfermos, los tardos en el hablar o incluso los de carácter rebelde, quienes eran llevados a esta ermita para ser bendecidos. El agradecimiento, en forma de limosna, consistía en una ofrenda de trigo cuyo peso era similar al peso del niño. También se solicitaba la intervención de la Virgen contra el trueno y el pedrisco.

La festividad de "La Magdalena", el 22 de julio, ha sido tradicionalmente celebrada en el barrio de Lamindano. Antiguamente se oficiaba también una misa el 8 de septiembre, Natividad de N^a Sra., y el lunes anterior a la festividad de la Ascensión tenían lugar las rogativas.

SAN MIGEL TXIKI ERMITEA

Gain baten dago, Idurgi, Mendiola eta Ilunbe baserrietatik hur, Olazabal Kofradian, eta *San Migel Txiki* esaten deutske herriarrek.

1775eko dokumentuetan aipatzen denez, Lamin-daoko kofradiakoa zan sasoi hartan ermitea.

Seguruenik, XVII. gizaldiaren hasieran eraiki eben; halan da bere, sarritan zaharbarritu dabe eraikina, azkenengoz 1985ean.

Ermiteak oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko estalkia ditu, bai eta erdi-puntuko hiru arkuko eleizpe txikia bere. Kanpantorrea fatxada nagusiko arkuaren gainean dago.

Eleizpean, zur torneatuko hesiak dabezan bi leiho txiki dagoz eta horreei esker ikusi daike barrualdea. Han dago San Migelen irudia Ama Birjinagaz batera. Ebanjelioaren ondoko pulpitu zaharraren hondarrak bere hantxe dagoz.

San Migel zazpi arkanjeluetatik lehenengoa eta zeruko ejertzitoen buru da kristautentzat, juduentzat eta islamdarrentzat. Luziferri irabazi eutsan eta, horregatik, holan irudikatzen dabe: armadureagaz eta bere lantzeagaz edo ezpateagaz deabru edo herensuge bat erasotzen.

Irailaren 29an da haren eguna, eta meza eta erromeriagaz ospatzen dabe "*San Migel Txiki*" eguna.



Está situada en un alto próximo a los caseríos de Idurgi, Mendiola e Ilunbe, en la Cofradía de Olazábal, y es popularmente conocida como *San Migel Txiki*.

En documentos correspondientes al año 1775 se hace referencia a esta ermita como perteneciente a la cofradía de Lamin-dano.

Probablemente, su construcción date de comienzos del siglo XVII, aunque el edificio ha sufrido diversas reformas, la última realizada en 1985.

La ermita, de planta rectangular y cubierta a dos aguas, posee a sus pies un pequeño pórtico con tres arcos de medio punto. Sobre el arco que da a la fachada principal se sitúa el campanil.

Desde el pórtico, dos pequeñas ventanas con barrotes de madera torneada, permiten la visión del interior, presidido éste por la imagen de San Miguel, acompañado de una imagen de la Virgen. Conserva restos del antiguo pulpito en el lado del Evangelio.

San Miguel, el primero de los siete arcángeles, es considerado jefe de los ejércitos celestiales no sólo por la religión cristiana, sino también por la judía y la islámica. Es el vencedor de Lucifer, por lo que se le representa con armadura y amenazando con su lanza o espada a un demonio o dragón.

Su festividad se celebra el día 29 de septiembre, fecha en la que tradicionalmente, Dima ha celebrado "*San Migel Txiki*" con misa y romería.

SAN FRAISKU ERMITEA

Olabarri auzuneko hatxaren azpian dago, eta, iraganean, Indusi kofradia-
ren egoitza izan zan.

Ermiteari "San Fraisku" esaten deutsie eta, hasieran, Olabarri-Gojenola sendiaren leinu-etxearen zati bat izan zan.

Noiz eraiki eben jakin ez arren, elementu batzuk, esate baterako, atek edo ur bedein-
katuaren ontziak (modu trake-
tsean zizelkatuta dago eta aurpegi bat irudikatzen dau) iradokitzen dabenez, ermitea XVI. gizaldirako eraiki eben. Ermiteak bataio-iturria dauka, bai eta eleizpea bere Epistolari; ermitara sartzeko ate bi dagoz.



Izena emoten deutsan santua, Asisko San Frantzisko, Italiako Asis hirian jaio zan 1182. urtean. Bere ondasun guztiei uko egin eutsen apostolu izateko eta behartsuen zerbitzura jarduteko. Frantziskotarren ordenaren fundatzailea izan zan, eta, Santa Klaragaz batera, Klarisen ordena bere sortu eban. Urriaren 4an ospatzen da haren eguna.

Kondairaren arabera, Baltzolako kobazuloko laminak desagertu egin ziran ermita horretako kanpai-hotzen ondorioz. Kondaira horrek antzinako sinesmen paganoak islatzen ditu, Euskal Herrian kristautasuna zabaldu baino lehenagokoak, hain zuzen bere.

San Gregorio Nazianzenoren irudia bere badago ermitan. Antza danez, antzina, Juan Ramon Iturrizarrekoaren arabera (XVIII. gizaldia), azken santu horrek emoten eutsan izena ermiteari. Antzina, haren egunean (maiatzaren 9an), ura bedein-
katzen eben, eta, gero, ur hori landetan banatzen eben uztak babesteko.

Está situada al pie de la peña que se alza sobre el barrio de Olabarri y en el pasado fue sede de la cofradía de Indusi. Esta ermita, popularmente conocida como de "San Fraisku", en sus orígenes perteneció a la casa solar de Olabarri-Gojenola.

Aunque se desconoce la fecha de su fundación, algunos elementos, como una de sus puertas de ingreso o la pila aguabenditera toscamente tallada con forma de rostro humano, inducen a pensar que ésta ya existiese en los albores del siglo XVI. La ermita, que cuenta con pila bautismal, posee también un pórtico situado tanto a los pies como en el lado de la Epístola, zonas donde se ubican las dos puertas de ingreso.

Su santo titular, San Francisco, nació en la actual ciudad italiana de Asís, el año 1.182. Hijo de un rico comerciante, renunció a todos sus bienes para dedicarse al apostolado y al servicio a los pobres. Fue el fundador de la orden franciscana y cofundador, junto con Santa Clara, de la orden de las Hermanas Clarisas. Su festividad se celebra el día 4 de octubre.

Cuenta la tradición que las lamias de la cercana cueva de Baltzola desaparecieron debido al sonido emitido por la campana de esta ermita, tradición que refleja reminiscencias de antiguas creencias paganas anteriores a la introducción del cristianismo en Euskal Herria.

La ermita guarda también una imagen de San Gregorio Nacianceno, antaño, al parecer, según referencias de Juan Ramón de Iturriza (s. XVIII), santo titular de ésta, o procedente, tal vez, de otra ya desaparecida, de su misma advocación. Antiguamente, el día de su festividad, 9 de mayo, se bendecía el agua que posteriormente era esparcida en los campos con el fin de proteger las cosechas.

SAN BLAS ERMITEA

Urregi auzunean dago, Dima eta Zeanuri herrien arteko mugan. Horregatik, bi herri horreek alkarbanatu izan dabez mantentze-lanak zein San Blasenganako debozinoa.

Izen hori dauan Bizkaiko ermita bakarra da; izan bere, bada San Blas eskainitako beste ermitaren bat, baina beste santu bategaz batera; esate baterako, Zeberioko San Pedro eta San Blas ermitea.

Eraikina nahiko handia da eta kanpoaldeko hormetan, erlijinozko arkitektura gotikoaren ohiko kontrahormak ikusi daitez. Barrualdea zabala da eta, burualdean, Jesus gurutziltzatua dago; haren aldamean, barriz, San Blasen eta Paduako San Antonioren irudiak dagoz.

Gurutze-bide bakun bat dauka alboetako bi hormetan bananduta. Ermitearen behealdean dagoan eleizpe txikiaren zati bat itxita dago; horma batek bereizten dau barrualdetik eta, horma horretan, zur torneatuko hesiak daukezan leihoak dagoz.

Esaten dabenez, San Blas Armenian jaio zan, medikua eta apezpikua izan zan, eta ezaguna zan bere osatzeko dohaina zala-eta. Bizia salbatu ei eutsan arrain-hazur bategaz itotzen ebilen ume bati, eta, ordudanik, samea jagoten dauala uste dabe sinestunek. Antza denez, Kapadoziara joan zan eta eremutarbiziera izan eban han. Martiritatuta hil zan 316. urtean.

Antzina, zezeilaren 3an, San Blas egunean, ohitura zan arto- eta baba-haziak eroatea ermita horretara, hazi horreek bedeinkatu ostean uzta ona izateko, bai eta elikagaiak eta samako gaixoetatik babesten eben lokarriak bedeinkatzea bere.



Está situada en la barriada de Urregi, justo en el límite jurisdiccional entre los municipios de Dima y Zeanuri. Por ese motivo, tradicionalmente, tanto su mantenimiento como la devoción por San Blas, han sido compartidos por ambas poblaciones.

Es la única ermita de Bizkaia bajo esta advocación, ya que en alguna otra como la de San Pedro y San Blas de Zeberio, la titularidad es compartida.

El edificio es de considerables proporciones, mostrando sus muros exteriores los típicos contrafuertes de la arquitectura gótica religiosa. El interior es espacioso y su cabecera está presidida por un Jesús crucificado, flanqueado por las imágenes de San Blas y San Antonio de Padua.

Posee un sencillo Via Crucis distribuido en ambas paredes laterales. El reducido pórtico, parcialmente cerrado, está situado a los pies de la ermita y separado del interior por una pared con ventanas de reja de madera torneada.

Cuenta la tradición que San Blas nació en Armenia, que fue médico y obispo, y que en vida era conocido por su don de curación milagrosa. Se dice que salvó la vida de un niño que se ahogaba al haberse atragantado con una espina de pescado, por lo que es considerado abogado contra los males de la garganta. Al parecer, retirado a Capadocia, llevó una vida eremítica. Murió martirizado el año 316.

Antiguamente, el 3 de febrero, festividad de San Blas, era costumbre traer a esta ermita las semillas de siembra del maíz y la alubia para que, tras ser bendecidas, propiciasen una buena cosecha. También era costumbre la bendición de alimentos y de los cordones protectores de los males de garganta.







DIMAKO UDALA



euskadi
atsegin handiz
con mucho gusto



INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Sela